



## PRENTSA-OHARRA

# Swinga izango da *Auzokale* programako hurrengo hitzorduaren protagonista, ostegunean, Milagrosa Civivoxeko patioan

The Good Time Rollers eta Pamplona Swing elkarteak musika- eta dantza-ikuskizuna eskainiko dute, 20:00etatik aurrera, eta sarrera libre da

*Auzokale* programa Milagrosara helduko da ostegunean, eta swinga izango du protagonista gisa. The Good Time Rollers eta Pamplona Swing elkarteak musika eta dantzarako arratsalde-gaua proposatuko dute, 20:00etatik aurrera, Milagrosa Civivoxeko patioan, eta sarrera libre da, joan nahi duen edonorentzat.

The Good Time Rollers taldeak energia handia agertzen du taula gainean, swinga, New Orleanseko musika edo rock and rolla maite duen edonore dantzarazteko moduan. Besteak beste, kontzertuetan Duke Ellington, Count Basie, Louis Jordan edo Louis Amstrongen musika ekartzen diete bertaratutakoei. Honako hauek osatzen dute taldea: Iñaki Rodríguez (saxoa eta klarineta), Luisa Brito (kontrabaxua), Hilario Rodeiro (bateria), Alberto Sanzol (tronpeta), Ramón García (pianoa) eta Terela Gradín (ahotsa).

Eskarmentu handiko musikariak dira, ideia argiekin, eta horiek guztiak elkartuta New Orleansetik Chicagorako ibilbidea egiten dute musikaren bidez, hartara sortuzswing, boogie, rhythm & blues eta rock and roll proposamen bat, non *hopper*-ek dantzalekuan sortzen duten giroa arnasten baita, emanaldi bakoitzean benetako festa bat eginda.

Pamplona Swing elkarteak swinga maite duten lagunak biltzen ditu, eta swingaren dantzarik bereizgarriena sustatzen du: Lindy hoba, joan den mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan New Yorkeko Harlem auzoan sortua. Duela bost urte abiatu zen elkartea, eta hasieratik Iñaki Rodríguez-en lagun izateari esker harekin eta haren taldeekin elkarlanean aritu da, behin baino gehiagotan. Taldearen eta elkartearen arteko senidetzeak arratsalde-gaueko saioan musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera perfektua eskaintzen du.

*Auzokale* Iruñeko Udalak udan zehar abiatutako programa kultural eta artistiko berria da, hiriko auzoetara musika- zein zirku-emanaldiak eramatea helburu duena. Programa abuztuaren 4tik 31ra gauzatuko da, atari zabalean, besteak beste Alde Zaharrean, II. Zabalgunean, Arrotxapean, Sanduzelain eta Iturraman kokatutako agertokietan.

1. orrialdea, (e)tik 2



## **AUZOKALE. PROPOSAMENAK AUZOETAN**

---

### **Abuztuak 24**

- KONTZERTUA ETA DANTZA
- The Time Rollers eta Pamplona Swing elkarte
- Milagrosako Civivoxeko patioa. 20:00

### **Abuztuak 25**

- KONTZERTUA
- Hutsun txalaparta. *Txalaparta Hutsa*.
- Mendillorriko Aintzirako Parkea. 20:00

### **Abuztuak 28**

- ZIRKUA
- La Raspa Circo. *Freak Show*
- Gortari Doktoarearen plaza (Sanduzelai). 19:30

### **Abuztuak 31**

- KONTZERTUA
- Bitartean
- Salestarren patioa (Txantrea). 20:00

Iruñean, 2017ko abuztuaren 23an